

**TOKIKO PARTE-HARTZE FONDOEN LEGE EZTABAIDA NAFARROAN.** CDN ez beste alderdiek osoko zuzenketa jarri dute

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Gaur eztabaidatuko dute Nafarroako Parlamentuan Tokiko Ogasunen Parte-hartze Fondo-en Legea, eta legebiltzarra bitan zatituta dago, CDN ez beste alderdi guztiek osoko zuzenketa aurkeztu diotelako UPNren Foru Lege proiektuari.

Lege proposamenak 2001. urterako aurreikusten dituen 26.673 milioi pezetan banaketa orekatua (1.067 milioi libera) ez dela bermatzen uste dute PSN, EH, EA-EAJ, IUN-NEB eta Batzarrek. Alderdi abertzaleak haratago joan dira salaketan. Lege proiektuak «boterean dagoen alderdiko udalek gehiago jasozten dutela nabaria da, eta gaitzuztekoak sailez sail, ate joka, eskale moduan ibiltzera behartzen gaitzuzte», salatu dute Shanti Kiroga EHko legebiltzarkideak eta elkarte bereko hainbat alkate nafarrek.

Nafarroako Foru Erkidegoan gaur egun 211 udal eta 61 kontzeju daude. Horietatik lau mila biztanletik gorakoak 20 udal txek bakarrik dira. Kontuan izanik lege horren dirua banatzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen duen sistema korapilotsuan baldintza esanguratsuenetakoa toki bakoitzeko biztanleria dela, aldeak nabariak dira. EHren aburuz, lau mila biztanle baino gutxiago dituzten udal eta kontzejuak «lehenengo diskriminazioa Iruñearekin egiten da, eta bigarrena lau mila biztanletik gora dituzten beste 19 udalekin. Gaitzuzteko 226 udalen artean banatzen da gaitzuzteko dirua». Gainera, Iruñeak hiriburu izateagatik 2.800 milioi pezeta gehiago jasotzen ditu.

Josu Goiak eta Tomas Azpiroz, Berako eta Leitzako EHko alkateak ez dute ulertzen zertan egiten duten «huts» dirua eskatzerakoan. Fondotik diru laguntza zuzenak eta Hiruko Planean (2001-2003) sartzan direnak jasotzen dira, batik bat.

Diru laguntza zuzenak aisialdirako eta kultur arloko proiektuak diruz laguntzeko erabiltzen dira, eta Hiruko Planean «udalerrietan premia handien duten eskaerak» izaten dira; normalean, azpiegiturak egiteko partidak dira.

Leitzako alkate Azpirozek dioenez, hango Udalak 222 mi-

MIKEL SAIZ  
Iruñeko Udaletxea.

## Bitan banatuko du gaur Toki erakundeek dirua arautzeko legeak Iruñeko Parlamentua

EHk dio udaletako diru banaketa egitean «alderdikeriak» daudela

lioi pezeta eskatu zituen Hiruko Planean, baina 43 bakarrik jaso ditu, eta aurreko Hirukoan «pezeta bat ere ez». Goia ere haserre dago oso: «Berako udaletxean komun bakarra dugu, ez dago igogailurik ezinduentzat, baina ez digute dirurik eman

hori moldatzeko». Euskal Herriarrok taldeko udal askok «loteria noiz tokatu zain» egon behar dutela diote, edo Diputazioan «atez ate eskale moduan ibili».

Hori dela eta, sistema ez dela «orekatua» salatu dute. EHk Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen sarreren %15 proposatu du Fondorako. Ildo berean, osoko zuzenketa azaldu duten beste alderdiek fondoaren banakeraren baldintzak aldatzeko eskatu dute zonen arteko desoreka aregotzen delako.

«Ez da benetako banaketa egiten», PSNren ustez

Virginia Izquierdo, PSNko parlamentariaren arabera, aurkeztu-

### LEGEAREN EZTABAIDA

#### Erabakia atzeratzeko aukera

Lehen bozketan ez ezik, oso litekeena da bigarren bozketan ere berdinketa izatea. Kasu horretan Legebiltzarreko Presidenteak erabakia atzeratzeko ahalmena du.

ten den legea 2001tik 2003koa da, baina aurtun onartutako aurrekontuetan esaten da Tokiko Ogasunen Fondoaren banaketa 2000. urtean egindako formularen arabera izanen dela. «Udalek ez dakite zer formula erabiliko duten. Ez da Tokiko erakundeek finantzaketa berdintasunaren arabera eta behar bezala bermatzen».

PSNren aburuz, finantzaketa modu berriak aurkitu behar dira, eta eztabaida ireki finantzaketa berrien inguruan. Camino Bonafaux Nafarroako Udal eta Kontzejuen Mankomunitateko teknikariak adierazi duenez, uztaile arte ez da «benetako banaketa egiten». Beraz, «badago denbora eztabaidatzeko eta formula orekatua aurkitzeko», dio Izquierdok.

Batzarrean lehendabiziko bozketan behintzat berdinketa izango da. Izan ere, UPNren 22 bozei CDNren hirurak batzen bazaizkie, beste guztiek adina izango dituzte biek. PSNk 11 legebiltzarkide ditu, EHk zazpi, EA-EAJK hiru, Nafarroako IUk ere hiru eta Batzarrek bat.

### KASUAK

#### Udalen arteko alde adierazgarriak

Gobernuak onartu nahi duen legearen arabera Iruñeko Udala eta beste gutxi batzuek ateratzen dute onura gehien.

**IRUÑEA.** Nafarroako hiriburuak 2000an 5.652 milioi pezeta jaso zituen. Horri gehitu behar zaio hiriburu karta izateagatik jasotako 2.800 milioi pezetak. Biztanle kopurua da laguntza jasotzeko aintzat hartzen den baldintzetako bat; Iruñeak 160.000 ditu. UPNko alkatea du.

**TUTERA.** Erriberako hiriburuak 1.022 milioi pezeta jaso zituen iragan urtean; 25.000 bizilagun ditu. Alkatea: UPN.

**CORELLA.** Erriberako herriak —Miguel Sanz eta Alberto Catalanen herriak— 236 milioi pezeta jaso zituen, eta 6.428 biztanle ditu. Alkatea UPN.

**LEITZA.** Mendialdeko herriak (EHko alkatea) 87 milioi pezeta inguru hartu zituen. Hiru mila biztanle baino gehiago ditu. Beraz, bizilagunen kopurua ez ezik, «alderdikeria» ere sartzen da jokoa; Tutera, Corella eta Iruñeak, kasu, onura handiagoa ateratzen dute partidetan.

### TOMAS AZPIROZ

Leitzako EHko alkatea


«Hiruko Planean 222 milioi eskatu eta 43 eman dizkigute. Aurrekoan ez genuen deus jaso»

### V. IZQUIERDO

PSNko parlamentaria

«Ez da bermatzen finantzaketa berdintasuna, eta formula berria aurkitu behar da»

EUSKARA  
GUZTION ESKUBIDEA



MANI+FESTA

OTSAILAREN 24AN LARUNBATA  
GOLEMETATIK 17:30 etan



OINARRIAK • ALKATEAK

Lingua Navarrorum • Euskara gurea